

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

108/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, hasierako onespena ematen diona Okinako herrian Bernedoko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, zuntz optikoa instalatzeko aireko kanalizazioa eta gurutzatzea egiteko badagoen azpiegitura baten gainean, Telefónica SAUk sustatutako proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari

Telefónica SAUk hirigintza lizentzia eskatu dio Bernedoko Udalari Okinan zuntz optikoa instalatzeko (2019/7772810/1 erreferentzia duen proiektua), udalerrian banda zabala sortzeko sare berriak hedatzeko programaren barruan. Horretarako, komunikazioa egin behar da, L531 P-70 postearen (A-4133 errepideko 13+750 KP, nekazaritza bidearen ondoan) eta P-72 postearen (Okinako Piruleta kaleko 32 zenbakiaren aurrean) arteko kanalizazioaren bidez. Lubakia gaur egun lurperatuta dauden eta herri hori A-4133 errepidearen paraleloan hornitzen duten kobrezko kableen ondotik igarotzen da.

Proiektua kanalizazioa (1.328 metro) gauzatzean datza. Horretarako, 40 mm-ko PEAD tritubo bat instalatuko da zanga batean lurperatuta, eta aireko gurutzatze berriak egingo dira A-4133 errepidean, 10+050 KP, 11+950 KP, 12+289 KP, 12+350 KP eta 12+850 KPetan dauden posteen azpiegituraren gainean.

Bernedoko Udalak espediente bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatzen du, lurzoruaren eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen parte da proiektu teknikoaren kopia bat, bai eta udal arkitektoak egindako txostena ere, non jasotzen baita telekomunikazioak hirigintzaren Okinako herrigunera bideratzeko, 6., 7. eta 8. eremuetako lurzoru urbanizaezinetik igaro beharko litzatekeela, bai eta "Errepideak Babesteko Zona" PC zonatik ere. Udal txostenak berriaz jasotzen du aipatutako eremu guztietan onartuta daudela onura publikoko eta interes sozialeko instalazioak eta azpiegiturak, baldin eta landa ingurunean kokatu behar badira, izaera jakin bateko jarduerak garatzeagatik, eta jarduera horiek ezinbestean lursail hartzaileari lotuta egon behar badute arrazoi zientifiko, topografiko edo antzekoengatik, edo lehen mailako baliabideen ustiapenari zerbitzua eman behar badiote. Hala zehazten da Bernedoko Udal Plangintzako indarreko Arau Subsidiarioetako 137. artikuluan ("zona bakoitzean baimendutako erabilerak eta jarduerak").

Proiektuaren kokapen geografikoa kontuan hartuta, egiaztatu da ES2110015 "Gasteizko Mendi Garaiak" kontserbazio bereziko eremuko babes eremu periferikoan dagoela, zeinaren izendapena Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 21eko 148/2015 Dekretuaren bidez onetsi baitzen. Ondoren, maiatzaren 10eko 74/2016 Dekretuak aurrekoa aldatu zuen II. eranskinari dagokionez, non jasotzen baitira araudia, kontserbazio helburuak eta jarraipen plana.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onesten duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 22.5 artikulua hau xedatzen du: "Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuak (HBBE) izendatzeko dekretuek kontuan hartuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kontserbatzeko sortutako arauak. Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kudeatzeko zuzentarauak eranskin gisa argitaratzeko agindua emango du.

Lurralde historikoetako foru-organoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak...”

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 19ko 472/2016 Erabakiaren bidez, Gasteizko Mendi Garaiak KBEaren gidalerro eta neurrien behin betiko dokumentua onetsi zen. Espazioaren organo kudeatzailea da Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Natura Ondarearen Zerbitzua.

Horren ondorioz, Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari helarazten zaie, Bernedoko Udalak igorritako proiektua espazio babestuen araudiarekin bateragarria den adieraz dezaten eta ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egin dezaten, hurrenez hurren. Horren emaitza espedientean jasoko da, dagozkion ondorioetarako.

ONARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak art.28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, “lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagozkion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren”.

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea Okinako herrian Bernedoko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, zuntz optikoa instalatzeko aireko kanalizazioa eta gurutzatzea egiteko bada-goen azpiegitura baten gainean, Telefónica SAUK sustatutako proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea hoguei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Aldi horretan nahi duen orok nahi dituen alegazio guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO